7 ZAZPI



LURRALDE.
BIDE PARTEKATU BAT.

7 TERRITORIOS.
UN CAMINO COMPARTIDO.

7 TERRITOIRES.
UN CHEMIN PARTAGÉ.

2027
2028



Euskal Herriko mendi ibilaldien zikloa
Ciclo de marchas de Euskal Herria
Cycle de randonnées d'Euskal Herria

emf.eus · ZAZPI

IBILALDIEN DOSSIERRA

2027 / 2028 · Lehen edizioa

euskalmendizalefederazioa

EUSKAL HERRIKO MENDIZALEEN BILTZARRA
UNIÓN VASCONAVARRA DE DEPORTES DE MONTAÑA

Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundea
Federación Navarra de Deportes de Montaña y Escalada

Zazpi lurralde. Bide partekatu bat

Askatasunaren bila abiatu zirenen bideak egitea. Meatzari belaunaldien lanleku eta bizileku izan ziren mendiak ezagutzea. Antzinako komunitateen memoria gordetzen duten harrietara hurbiltzea, eta historia kantuen eta kontakizunen bidez bizirik mantentzen duten herriak ezagutzea.

Abian da ZAZPI, 2027an eta 2028an Euskal Herriko zazpi lurraldeak zeharkatzeko zazpi mendi ibilaldiko zikloa. Herria oinez ezagutzeko gonbidapena da, bertako paisaiek gordetzen dituzten istorioak aurkitzeko eta esperientzia hori mendizale komunitatearekin partekatzeko.

Proiektua Euskal Herriko Mendizaleen Biltzarrak, Euskal Mendizale Federazioak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioak bultzatu dute, Euskal Herriko erakunde eta mendizale elkarteen laguntzarekin.

ZAZPIk Ezkabatik ihes egin zuten presoen aztarnei jarraitzea proposatzen du, baita okupazio naziaren garaian hegazkinlari aliatuei muga zeharkatzen lagundu zieten pertsonen elkartasuna gogora ekartzea ere. Halaber, Meatzaldeko langileen bizimodua eta aldarrikapenak ezagutzeko, Arritzagako kobre-meategiak eta iragan glaziarra aurkitzeko, Arabako mendebaldeko muturreko ondarea ezagutzeko, Ilarritako hilobi-monumentuetara hurbiltzeko eta Xiberoako bide, kantu eta memorian murgiltzeko gonbidapena egiten du.

7 IBILALDI 2027 2028

IBILBIDEAK

01 La Fuga Mendi Martxa
02 Meatzaldea
03 Zalagaine - Bosmendieta
04 Herriko Comète Sarea
05 Ilarritako harrespilak
06 Valderejoko Itzulia
07 Arritzaga



01 NAFARROA
La Fuga Mendi Martxa

Europako espetxe bateko ihesaldirik handiena



DATA

2027.05.15

DISTANTZIA
28,34 km

DESNIBEL POSITIBOA
830 m

Lineala · Ezkaba - Saigots

Antolatzailea: La Fuga Kirola - Oroimena Mendi Taldea

Nafarroari dagokion La Fuga Mendi Martxak GR-225 ibilbideari jarraitzen dio. Memoria historikoari lotutako ibilbide horrek 1938ko maiatzean San Kristobal gotorlekutik ihes egin zuten presoek egindako bidea gogora ekartzen du. Martxak Ezkaba, Olabe, Saigots, Sorogain eta Urepel (Iparraldea) lotzen ditu, presoek askatasunera iristeko zeharkatu zituzten paisaia eta bideetan barrena.

Martxaren ibilbide osoak 54 km ditu, bi etapatan banatuta. Lehenengoa San Kristobal gotorlekutik Saigotseraino doa, eta horixe da ZAZPI proiekturako proposatutako zatia, guztira 28,34 km dituena. Distantzia hori osatuta, zikloko lehen ibilaldia egindakotzat baliozkotuko da. Nahi dutenek Urepeleraino jarraitu ahal izango dute, ibilbide osoa osatzeko; bertan amaituko da jardunaldia.

Ibilbidea San Kristobal gotorlekuan hasten da, Iruñea gaineko Ezkaba mendiaren tontorrean. 1934tik espetxe gisa erabilitako gotorleku horretan milaka preso egon ziren Gerra Zibilean, oso baldintza gogorretan: pilatuta, elikagai eskasia, hotza eta gaixotasunak pairatuz.

1938ko maiatzaren 22ko gauean, 795 presok ihes egin zuten San Kristobal gotorlekutik, Europako espetxe bateko ihesaldirik handientzat jotzen den hartan. Askatasunaren aldeko lasterketa gisa hasi zena jazarpen basati bihurtu zen Nafarroako mendietan: iheslarietatik 206 hil zituzten, 586 atxilotu eta espetxera itzuli zituzten, eta hiruk baino ez zuten lortu Frantziako Estaturako muga zeharkatzea.

Ibilaldiak gizon haietako batek egindako bidea egiteko aukera eskaintzen du, mendian ibiltzea memoria eta aitortza ariketa bihurtuz. Nafarroako iparraldeko mendi, baso eta herrietan barrena, parte-hartzaileek Nafarroako memoria historikoaren gertakari esanguratsuenetako bat ezagutuko dute, muturreko egoeran askatasuna bilatu zutenen oroimena bizirik mantenduz.

TRACK loc.wiki/t/295995468

IKUSI IBILALDIA EMF.EUS-en

IBILBIDEAK

02 BIZKAIA Meatzaldea

Burdinaren Kalifornia



DATA

2027.06.13

DISTANTZIA
24,84 km

DESNIBEL POSITIBOA
974 m

Zirkularra

Antolatzaileak: Arroletza M.T. / Enkarterriak M.E.

Zugaztietak, Bizkaiko Trapagaran udalerrian kokatuta, Bizkaiko inguru hau eraldatu zuen meatzaritzaren aztarna gordetzen du. Herrixka 1877an sortu zen, burdinaren erauzketaren goraldian, eta Monumentu Multzo izendatuta dago. Gaur egun, aire zabaleko meatze zaharrek aintzira eta berdegunez osatutako paisaia eratzen dute, eta industria-historiak bizirik dirau bertan.

Lehen etxebizitzak egurrezko eta latorrizko barrakoiak izan ziren, inguruan geratzen zen azken zuhaiztiaren ondoan eraikiak; zuhaizti hark eman zion izena herrixkari. Mineralaren eskari gero eta handiagoak milaka langile erakarri zituen Gaztelatik, Galiziatik, Aragoitik eta Euskal Herriko beste leku batzuetatik. «Burdinaren Kalifornia» izenez ezaguna zen meatze-arro hark hazkunde bizkorra izan zuen: 1911n, Zugaztietak 3.000 biztanle inguru zituen.

Lanaren gogortasunak eta ostatu hartzeko baldintza kaskarrek markatzen zuten eguneroko bizitza. Testuinguru horretan indarra hartu zuten lan-aldarrikapenek, sindikatuek eta meatzari familien arteko elkar laguntzarako ekimenek. Horien artean nabarmendu zen Zugaztietako Ekonomatoa, 1904an sortua oinarrizko produktuen hornidura errazteko, meatzaritzari emandako herri baten beharren erakusgarri.

Erauzketaren gainbeherarekin, ingurunea berriro eraldatzen hasi zen. Utzitako meatze-zuloak urez bete ziren, eta gaur egungo paisaiaren bereizgarri diren aintzirak sortu ziren. Zugaztietan barrena ibiltzeak iragan hori ezagutzeko aukera ematen du, meatzeen aztarnen eta herrixka zaharraren bidez, baita ustiapenen lurrak hartu dituzten berdeguneez gozatzeko ere.

TRACK loc.wiki/t/296118105

IKUSI IBILALDIA EMF.EUS-en

IBILBIDEAK

03

ZUBEROA

Zalagaine - Bosmendieta

Basabürüa, Xiberoaren bihotza



DATA

2027.09.25

DISTANTZIA
21,91 km

DESNIBEL POSITIBOA
1.275 m

Zirkularra

Antolatzailea: Orhimendi Taldea

Zalagaine/Bosmendietako ibilbide zirkularra Ligitik abiatzen da, eta Xiberoako ikuspegi zabalak, larreak eta basoak euskal kulturari lotutako lekuekin uztartzen ditu. Etengabeko igoerak Buskoiko lepora eramaten gaitu, eta handik mendigandor batetik jarraitzen du tontorreraino. Bertatik, besteak beste, Orhi, Irati, Holtzarte, Pistako urjauzia eta San Martin Harria ikus daitezke. Ia Zuberoa osoa ikus dezakegu.

Bosmendietan barrena egiten den jaitsierak larreak zeharkatzen ditu, Ibar Eskuin bailarara eta Altzai eta Lakarri bezalako herrietara begira. Ondoren, bidea Erbexeko basoan sartzen da; bertan, ehun urtetik gorako zuhaitzak eta gutxi eraldatutako ingurunea nabarmentzen dira. XIX. mendearen amaieran, burdin mineralez zamatutako mandoek haran hau zeharkatzen zuten, Larraineko burdinoletara bidean.

Aretalepoako hondakinek inguruko biztanle batzuk zer isolamendu-baldintzatan bizi ziren gogorarazten dute. Ibilbidea Etxebarretik ere igarotzen da, Xiberoako herririk txikienetik. Lasaitasuna da herriaren ezaugarrietako bat, eta bertaraino iristen diren bideak herrian bertan amaitzen dira.

Espeldoia auzoan Bereterretxeren disko-formako hilarria dago. Hilarriak XV. mendean Mauleko bizkondearen aginduz hildako Larraineko laborari bat gogora ekartzen du. Gertaera hark Euskal Herriko herri-kantu zaharrenetako eta ezagunenetako bat sortu zuen, besteak beste Mikel Laboak kantatu izan duena. Handik, bidexka batetik itzultzen da Ligira.

TRACK loc.wiki/t/295975615

IKUSI IBILALDIA EMF.EUS-en

IBILBIDEAK

04 LAPURDI
Herriko Comète Sarea

Ihesaldi handia



DATA

2028ko MAIATZA*

DISTANTZIA
24,18 km

DESNIBEL POSITIBOA
1.332 m

Lineala

Antolatzailea: Xogori Mendi Taldea

Lapurdi lurraldeko Comète Sareari eskainitako ibilaldiak Bigarren Mundu Gerrako ihes-sare nagusietako bat gogora ekartzen du. Andrée de Jonghek, «Dédée» ezizenez ezagunak, eta Arnold Deppék sortu zuten Belgikan, 1941ean. Europa okupatuan hegazkina eraitsi zieten hegazkinlari aliatuei nazien jazarpenetik ihes egiten eta Erresuma Batura itzultzen laguntzen zien.

Iheslariek trenez egiten zuten Bruselatik edo Paristik Euskal Herrirako bidaia, nortasun-agiri faltsuekin eta erakundeko kideek lagunduta. Baiona, Angelu eta Donibane Lohizune ezkutuko ibilbide horren babesguneak ziren. Han, laguntzaile sare batek ostatua eta janaria eskaintzen zizkien, eta ihesaldiaren hurrengo etapa prestatzen zuen.

Euskal lurraldeetatik abiatuta, taldeek ezkutuan zeharkatzen zuten muga, Pirinioetako bideak eta pasabideetako zaintza ondo ezagutzen zituzten herritarren eta mugalarien laguntzaz.

Ibilbideek Bidasoa, Baztan edo Itxasu bezalako inguruak zeharkatzen zituzten. Lurraldea ezagutzea funtsezkoa zen akituta iristen ziren, ingurua ezagutzen ez zuten eta bidaian aurrera egiteko laguntza behar zuten pertsonak gidatzeko.

Oharretan jasotako datuen arabera, Comète Sareak 800 pertsona baino gehiago jarri zituen salbu, horien artean 700 hegazkinlari aliatu inguru. Ehunka boluntarioren lanari esker izan zen posible: Gestaporen aurrean bizitza arriskuan jarri zuten iheslariei harrera egiteko, bidean laguntzeko eta babesa emateko. Lapurdiko ibilaldiak askatasunaren bila paisaia hauek zeharkatu zituztenak nahiz askatasun hori lortzen lagundu zietenak gogora ekartzen ditu.

TRACK loc.wiki/t/296250405

IKUSI IBILALDIA EMF.EUS-en

* 2028ko aurreikuspena · Behin-behineko data

05 NAFARROA BEHEREA
Ilarritako harrespilak

Ondare megalitikoa eta artzaintza-paisaiak Okabe inguruan.



DATA

2028ko ekaina*

DISTANTZIA
21,20 km

DESNIBEL POSITIBOA
1.355 m

Lineala

Antolatzailea: Irati-Zaraitzu Kirol Taldea

Nafarroa Behereari dagokion «Ilarritako harrespilak» ibilaldiak 21,2 kilometroko ibilbidea proposatzen du, goi-larreen eta Pirinioetako gailurren artean. Erakargarri nagusia Ilarritako nekropolia da, Okabeko nekropolia izenez ere ezaguna, mendi horretatik gertu kokatua. Pirinioetako historiaurreko hilobi-monumentuen multzorik handienetako bat da.

Harrizko zirkulu horiek Brontze eta Burdin Aroetan mendian bizi eta ibili ziren komunitateak ezagutzeko aukera ematen dute. Hilobi-funtzioa zuten: erdian hildakoen errautsak uzten zituzten. Harriak tamaina apalekoak izan arren, leku berean hainbeste zirkulu egoteak agerian uzten du ehorzketa-gune horrek belaunaldiz belaunaldi izan zuen garrantzia.

Monumentuak antzinatik artzaintzari lotutako lurralde baten parte dira. Gaur egun ere goi-larreak baliatzen dituzten artaldeek aztarna horiekin partekatzen dute paisaia, mendiko abeltzaintzaren jarraitutasunaren erakusgarri. Nekropoliak aukera ematen du irudikatzeko inguru hori, bizibidea eskaintzeaz gain, Pirinioetako komunitateen elkargune eta oroimenerako leku ere izan zela.

Ibilbideak inguruko haranetara, gailurretara eta Iratiko basora begirako ikuspegiak ere eskaintzen ditu. Mendiko eremu irekietan, harrespilek gelditzera eta eraikuntza xume horiei erreparatzera gonbidatzen gaituzte; haien historia ezagutu ezean, oharkabean pasa litezke. Ibilaldiak Nafarroa Behereko paisaia eta bertan bizi izan zirenen aztarnak uztartzen ditu, artzaintzak bizirik jarraitzen duen ingurunean.

TRACK loc.wiki/t/296113743

IKUSI IBILALDIA EMF.EUS-en

* 2028ko aurreikuspena · Behin-behineko data

06 ARABA
Valderejoko itzulia

Mila urteko harana



DATA

2028ko urria*

DISTANTZIA
23,14 km

DESNIBEL POSITIBOA
762 m

Zirkularra

Antolatzaileak: Arabako Foru Aldundia, Valderejoko Parke Naturala eta Gorostidi Mendi Taldea

Udazkenero bezala, Valderejoko Parke Naturalak bere Mendi Ibilaldi herrikoia egingo du. 2026an 23. edizioa bete duen ekimen honek parkeko natura- eta kultura-baliabideak mendian ibiliz ezagutzeko gonbidapena egiten die herritarrei. Arabako Foru Aldundiak eta Valderejoko Parke Naturalak berak sustatzen dute ibilaldia. ZAZPIk bere zikloan txertatuko du, Gorostidi Mendi Taldearen laguntzarekin.

Valderejo Arabako mendebaldeko muturrean dagoen haran txiki bat da, harkaitz-malkarrez inguratua, eta 1992an Parke Natural izendatu zuten. 3.496 hektareako azalerarekin, Arabako parke natural txikiena da. Basoak, larreak eta labarrak biltzen dira bertan, mendeetan zehar gizakiaren presentziaren lekuko den kultura-ondarearekin batera.

Recuenco, Vallegrull eta Santa Ana mendiek Purón ibaiaren harana inguratzen dute; bertako labore-sailek eta belardiek nekazaritzaren eta abeltzaintzaren aztarna gordetzen dute.

Mendi-hegaletan pinu gorriz osatutako pinudi zabalak hazten dira, artadi eta pagadiekin batera. Urak milaka urtez moldatu du harkaitza, Puróngo haitzartea eta ur-jauzia bezalako lekuak sortuz; goialdeetan, berriz, larreak, ipuruak, azeri-mahatsak eta txilarrak nagusitzen dira.

Ingurune-aniztasun horrek espezie ugariri eskaintzen die babesa. Basoetan basakatu iheskorra eta mokokerra bezalako hegaztiak bizi dira; labarren gainean, berriz, arrano beltza eta sai zuria ikus daitezke. Sai arreak presentzia nabarmena du: Valderejoko harkaitz-hormetan dago Euskal Autonomia Erkidegoko hegazti sarraskijale horren koloniarik handiena.

Haranaren historia bertako monumentu eta eraikinetan ere irakur daiteke. San Lorentzoko tumulu-multzoa eta Leróngo menhirra antzinako biztanleen lekuko dira. Ondare horri haitzean zulatutako eremitorioak, San Lorentzoko ermita eta Santa Elena, Lahoz eta San Esteban elizak gehitzen zaizkio, Valderejoko bizitzaren garai desberdinak ezagutzeko aukera emanez.

TRACK loc.wiki/t/296190852

IKUSI IBILALDIA EMF.EUS-en

* 2028ko aurreikuspena · Behin-behineko data

07 GIPUZKOA

Arritzaga

Izotzaren arrastoak Aralarren bihotzean



DATA

2028ko urria*

DISTANTZIA
21,09 km

DESNIBEL POSITIBOA
1.323 m

Zirkularra

Antolatzailea: Club Vasco de Camping, CVC

Arritzaga Gipuzkoan dago, Aralar mendigunean, eta Euskal Autonomia Erkidegoan identifikatutako haran glaziar bakarraren aztarnak gordetzen ditu. U formako profilak eta harkaitzezko mendi-hegalek itxura alpetarra ematen diote. Duela 40.000 urte inguru, bost kilometro luze eta laurogei bat metro lodi zen glaziar batek zeharkatzen zuen inguru hau, gaur egun ikus dezakegun erliebea moldatuz.

Arritzagako arrokek askoz ere iragan zaharragoaren berri ematen dute: itsaso tropikal baten azpian sortu ziren, eta koralen, ammoniteen eta beste itsas organismo batzuen fosilak gordetzen dituzte.

Denborarekin, lurrazalaren mugimenduek arroka horiek tolestu eta goratu zituzten, Aralarko mendiak eratu arte. Izotzak eta urak paisaiaren eraldaketa osatu zuten; bertan, antzinako glaziarrak utzitako formak eta ibaiak zulatutako haran estua bereiz daitezke.

900 metrotik gorako altueran daude Buruntzuzingo kobre-meategiak. Milaka urtez ustiatu ziren, aldizka, 1965ean itxi zituzten arte. Meatze-jarduerak gorakada handia izan zuen XVIII. mendearen amaieran. Oraindik ere meatze-ahoak, galeriak, zamalekuak eta erreka ondoko minerala garbitzeko guneak gordetzen dira, baita minerala airean zintzilikatutako bagonetetan garraiatzeko erabiltzen zen kable- eta polea-sistemaren aztarnak ere.

Meatzaritzak eta artzaintzak markatu zuten haran honetako bizimodua, altitudeak eta klimaren gogortasunak baldintzatua. Larreek, bordek eta meatze-aztarnek erakusten dute nola baliatzen ziren mendiko baliabideak. Kareharrian zehar iragazten den urak elikatutako iturburuak funtsezkoak izan dira udan aziendari ura emateko, eta Arritzagako paisaiaren parte dira oraindik ere.

TRACK loc.wiki/t/296246806

IKUSI IBILALDIA EMF.EUS-en

* 2028ko aurreikuspena · Behin-behineko data

ZAZPI osatzea

Egindako bidearen aitortza

Lehen edizio honetako bi urteetan zazpi ibilbideak osatzen dituzten mendizale federatuek finalista izaera lortuko dute, betiere ZAZPIren araudia eta antolakuntzak ezarritako baliozkotze-irizpideak betez.



Aitortza 2028ko Mendizaletasunaren Galan gauzatuko da: bertan, zikloko zazpi ibilaldiak osatu izana egiaztatuko duten garaikurra eta intsignia jasoko dituzte. Haien lorpena federazioaren urtekarian ere jasoko da.

Ibilaldi bakoitza baliozkotzeko, egindako ibilbidea grabatu beharko da, Wikiloc edo Strava bezalako aplikazioen bidez, eta jardunaldi bakoitzaren helmugan erakutsi, antolakuntzak egiazta dezan. Grabatutako ibilbideak ZAZPIk proposatutakoarekin bat etorri beharko du.

Erreferentziako ibilbideak EMFren Wikiloc profilean egongo dira eskuragarri.

Egutegia eta informazio eguneratua

2028ko datak behin-behinekoak dira. Ibilaldi bakoitzaren aurretik, klubaren deialdia, izena emateko baldintzak eta ibilbideari buruzko informazioa kontsultatu beharko dira ZAZPIren webgune ofizialean.

Segurtasuna

Parte-hartzaile bakoitzak ibilbidearen ezaugarriei egokitutako prestakuntza fisikoa, esperientzia eta materiala izan beharko ditu, eta antolakuntzaren jarraibideak bete beharko ditu.

Federazio-lizentzia eta jarduera nahiz hura egingo den lurraldea estaltzen dituen asegurua izan beharko dira. Frantziako Estatuan egingo diren ibilaldietan, nahitaezkoa izango da Pirinioetako estaldura edo ibilbide horiek barne hartzen dituen estaldura zabalagoa izatea.

Kontrolei, gidaritzari, anoa-puntuei eta segurtasun-neurriei buruzko informazio zehatza ibilaldi bakoitzaren deialdian emango da.

emf.eus · ZAZPI

NAFARROA · La Fuga Mendi Martxa
BIZKAIA · Meatzaldea
ZUBEROA · Zalagaine - Bosmendieta
LAPURDI · Herriko Comète Sarea
NAFARROA BEHEREA · Ilarritako harrespilak
ARABA · Vuelta a Valderejo
GIPUZKOA · Arritzaga

7 ZAZPI

2027
2028

LEHEN EDIZIOA
PRIMERA EDICIÓN
PREMIÈRE ÉDITION

7 LURRALDE. BIDE PARTEKATU BAT.
7 TERRITORIOS. UN CAMINO COMPARTIDO.
7 TERRITOIRES. UN CHEMIN PARTAGÉ.



Euskal Herriko mendi ibilaldien zilkloa
Ciclo de marchas de Euskal Herria
Cycle de randonnées d'Euskal Herria

01	2027.05.15	NAFARROA **La Fuga Mendi Martxa**	28,34 km ↑830 m
02	2027.06.13	BIZKAIA **Meatzaldea**	24,84 km ↑974 m
03	2027.09.25	ZUBEROA **Zalagaine-Bosmendieta**	21,91 km ↑1.275 m
04	2028.05*	LAPURDI **Red Comète**	24,18 km ↑1.332 m
05	2028.06*	NAFARROA BEHEREA **Crómlech de Ilarrita**	21,20 km ↑1.355 m
08	2028.10*	ARABA **Valderejo**	23,14 km ↑762 m
07	2028.10*	GIPUZKOA **Arritzaga**	21,09 km ↑1.328 m

* 2028: behin-behineko datak / fechas provisionales / dates provisoires

euskalmendizalefederazioa

EUSKAL HERRIKO MENDIZALEEN BILTZARRA
UNIÓN VASCONAVARRA DE DEPORTES DE MONTAÑA

Mendi eta Eskalada
Kirolen Nafar Federakundea
Federación Navarra de
Deportes de Montaña y Escalada

LAGUNTZAILEAK:

araba álava
foru aldundia diputación foral

CVCE

INFORMAZIOA
INFORMACIÓN
NFORMATIONS

emf.eus · ZAZPI